

200.000 etorkin erroldatuta Hego Euskal Herrian

Hego Euskal Herrian erroldatuta dauden etorkinen kopurua 200.000 inguruan dabil eta horrek azken bi urtetan %34ko hazkundera esan nahi du. Erdiak baino gehiagok Latinoamerikan du jatorria. Gizarte Segurantzaren afiliatutako hirutik bat etorkina da.

DANIEL UDALAITZ

200.000 inguru dira Hego Euskal Herrian erroldatutako atzerritarrek, 2008ko urtarrilaren 1a arte bildutako datu ofizialen arabera eta data horretatik gaur arte izan den hazkunderaren aurreikuspen ez ofizialak kontuan izanda. Datu ofizialek diotenez, EAEn erroldatutako etorkinen kopurua %34an hazi da azken bi urtetan eta kopuru hori 116.650 pertsonakoa zen 2008ko urtarrilaren 1ean.

Nafarroari dagokionez, garai berean, etorkinen kopurua 64.518ra iritsi zen. Ondorioz, 2008ko urtarrilaren 1a bitarteko datu ofizialen arabera, Hego Euskal Herrian 181.168 atzerritar zeuden erroldatuta, gehienak jatorri latinoamerikarrekoak.

Urtero udaletan 9.000 eta 14.000 bitarteko etorkin kopurua erroldatzen dela kontuan hartuz gero, honezkero Hego Euskal Herrian 200.000 etorkin erroldatu inguru daudela esan genezake.

Konparazio batera, Espainiako Estatuan, 2008ko urtarrilaren 1a arte, bost milioitik gora (5.220.577) etorkin zeuden erroldatuta.

Giza fluxu horri "paperik gabeko"en kopuru zehaztugabea gehi-



OIER ARAOLAZA

Immigrazioaren Behatokiak 2007an egindako inkestaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko lau etorkinetik hiruk dio, berriz erabakitzeak aukera izango balu berriz ere emigratu egingo lukeela. Errumaniarrak dira (argazkian Beasaingo festetan 2007an) asebetetze maila txikiena azaldu zutenak.

tu behar zaio. Horiek ez dira erroldatu, bai nahi ez dutelako, bai egin ezin dutelako, nortasun agiririk edo bizileku finkorik ez baitute. Arazo hori hainbat hila-betetan luzatu ohi da, urtebete baino gutxiago, horixe baita etorkinek beren herrialdeetako kontsulatueta pasaportea bideratzen edo udal erroldatan aurkeztu

beharreko errentamendu kontratua lortzen ematen duten denbora.

10.000 etorkin urtero

Euskal Herri osoko datu ofizialik ez dautu, ezta Hego Euskal Herriko ere. Horregatik, 2008ko urtarrilaren 1a arte bildutako EAEko datu ofizialak eskainiko ditugu, baita Nafarroakoak ere. EAEko datuak INE Estatistikako Institutu Nazionalan nahiz *Ikuspegi* Immigrazioaren Euskal Behatokiaren buletinean bildu dituzte, eta azken hau Interneten ere eskura dago (www.ikuspegi.org). Nafarroako datuak INEtik hartu ditugu. Estatistika taulean ar-

bera, 2001etik aurrera, urtero 9.935 eta 13.728 artekoa izan da EAEko udaletan erroldatu diren etorkinen kopurua. Modu horretan, oinarritzko osasun, hezkuntza, arreta sozial eta justizia zerbitzuetara jo dezakete, baita oinarritzko errentaren prestaziora ere, beren egoera administratiboa oraindik ez erregularizatu arren.

Immigrazioa

Atzeritar biztanleria

Euskal Autonomia Erkidegoa

2008ko urtarilaren 1ean erroldatuak: 116.650

1998an erroldatuak: 15.198


Hazkundera hamar urtetan: % 645,5

Nafarroa

2008ko urtarilaren 1ean erroldatuak: 64.518.


2007arekiko hazkundera: %2,2 (EAEn %0,6).

Probintziak (2008)



■ Araba ■ Gipuzkoa ■ Bizkaia

Biztanle kopurua jatorriaren arabera (2008)



Langile atzeritarrak

Gizarte segurantzaren kotizatzen dutenak


Espainia: 2.047.942 (Guztiaren %10,3)

Hego Euskal Herria: 81.018 (%5)

EAE: 49.791 (%3)

Nafarroa: 31.227 (%2)

Afiliatuak erregimenaren arabera



■ Erregimen orokorra

■ Autonomoak

■ Etxeko zerbitzuak

Pozik gure artean

Besteak beste, etorkinak euskaldunon artean nola sentitzen diren jakiteko inkestaren emaitzak jakinarazi ziren iaz. Inkesta EAEko etorkinertara mugatzen da, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren mendeko Immigrazioaren Behatokiak burutu baitzuen, EHU-rekin elkarlanean. Ez dirudi inkestaren emaitzak bestelakoak izango liratekeenik Euskal Herriko gainerako lurraldeetan.

Immigratzea gogorra izanik ere, EAEn bizi diren lau etorkinetatik hiruk gauza bera egingo lukeela dio, bizitzan atzera egiteko aukera balu. Hamarretik seik gure artean betiko geratzeko eta bizi proiektua hemen burutzeko asmoa du. Euskal gizarteak eskaintzen dien lanarekin pozik daude. Gehienak ez dira diskriminatuta edo baztertuta sentitzen. Ehuneko 69,5ak dio ongi gizarteratuta daudela, eta oro har EAEn duten bizimoduarekin pozik daudela dirudi. Izan ere, 1etik (okerrena) 10era bitarteko eskalan, 6,96koa da emaitza. Errumaniarrak dira asebetetze mailarik

baxuena dutenak eta geratzeko gogo gutxien dutenak. Bestalde, duela gutxi aurkeztu den *Pobrezia eta Desberdintasun Sozialen Inkesta*, 2008ren arabera, EAEn txirotasuna gehien nozitzen dutenak etorkinak dira. Ehuneko 25,6 egoera horretan bizi da.

2008ko urtarilaren 1ean Hego Euskal Herrian 181.168 etorkin zeuden erroldatuta. Horietatik 116.650 EAEn daude eta 64.518 Nafarroan

Euskal nortasuna salbu

Euskal herritarren %57ak dio ona dela gizarte kultura ezberdinek osatzea. %80ak uste du atzeritarren kopurua gehiegizkoa edo nahikoa dela. %15ek immigrazioa Euskal Herriko hiru arazo garrantzitsuen artean aipatzen du. %57ak ez du

uste immigrazioak euskararen garapena oztopatuko duenik eta %60ak ere ez du uste euskal identitatea lausotuko duenik. Horixe dio EAEko Immigrazioaren Euskal Behatokiak burututako inkestak.

Miloi bat pentsiodun mantendu

Etorkinek beren kotizazioen bidez Gizarte Segurantzari egiten dioten ekarpenak garrantzia handia du Espainiako Estatuan eta, ondorioz, dagokion proportzioan, baita Hego Euskal Herrian ere. Horrenbestez, Espainiako Gobernuak instantzia ofizialek diotenez, etorkinen kotizazioen ekarpenari esker miloi bat pentsiodun mantentzen dira. Kontuan izan behar da Espainiako Estatuan, errolda 2007ko urtarilaren 1ean eguneratuta, 45.200.737 pertsona zeudela erroldatuta, eta horietatik 4.519.554 etorkinak zirela. Horietatik bi milioitik gora (2.033.036) Gizarte Segurantzaren afiliatuta zeuden. Data berean, Hego Euskal Herrian 154.029 etorkin zeuden erroldatuta, horietatik 98.108 EAEn eta 55.921 Nafarroan. ■